

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeraekiko harremana funtsezkoa da enpresa batek ondo funtzionatzeko, hau da, komunikazio egokia izateko eta bezeroen artean konfiantza sortzeko. Horretarako, hainbat ekintza eta estrategia erabiliko ditugu bezeroak hobeto ezagutzeko eta zerbitzu hobeago bat eskaintzeko.

Alde batetik, erabiltzaileen beharrak identifikatzeko galdetegiak: erabiltzaileek zein behar, interes eta gustuak identifikatzeko galdetegi bat bidaliko zaie.

Bestalde, funtsezkoa da komunikazio egokia izatea adin desberdinetako jendearekin, gazte zein helduekin. Horretarako, mezu argiak, erakargarriak eta errazak bidaliko ditugu komunikabide ezberdinen bidez, hala nola, publizitatearen bidez, sare sozialen bidez, kartelen edo informazio-mezen bidez. Publizitate horien helburua jendeak gure enpresaren zerbitzuak eta ideiak ezagutzea da, baita non eskaintzen diren jakinaraztea ere eta bezeroak gurekin erraz kontaktatu ahal izateko. Horrek bezeroekiko komunikazioa eta harremana indartzen lagunduko du.

Ondoren, SMS-z, mezu elektronikoz edo whatsapp bitartez eskainiko den agenda bidaliko zaie.

Udalak diren bezeroei, hilabetero egindako ekintzen eta erabiltzaileen inguruko txostena bidaliko zaie erabiltzaileen asetasun inkestarekin.